


## ZUBEROAKO LITERATURA

1

1996ko agorrilaren 2an, ostirala, eta Zuberoako AEK-k Mendikotako San Frantzisko Xabier ikastegian antolaturiko zuberazko ikastaldi baten barruan, Jean Louis Davant-ek oso hitzaldi eder bezain aberatsa eskeini zuen, non Zuberoan izan den literatur produkzioa aztertu zuen. Izugarri interesgarria iruditu zitzaidanez gero, oharrak hartu, berak zubereraz esandakotik jaso, eta gero nire modrua batueraz moldatu egin dut artikulu antzeko hontan. Ikus dezakezuen bezala, meritua ez da nerea, zuberotar idazle eta euskaltzain handi horrena baizik.



*Zuberoa (Xiberoa bertako hizkeraz) Euskal Herriko lurralderik ekialdearrena dugu. Oso nortasun handikoa, eta literatura aberatsekoa.*

## 1.- Hastapenak

Gaur ezagutzen ditugun kantu epikorik zaharrenak XV. mendekoak dira, eta gehienetan orduko ahaide nagusien arteko borroken berri ematen zaigu. Horixe bera da zubereraz ezagutzen dugun lehen kantuak "Bereterretxen khantoria" (1434-1449) izenekoan kontatzen zaiguna. Kantuaren pertsonaia nagusia, Bereterretxe, Larrañeko laboraria omen zen, zaldun agramontarra. Leringo konte beamontarrek etxetik irtenarazten du eta gero traizioz hiltzen. Hauxe da kantu eder honen bidez ezagutarazten zaiguna. Saralegi notarioak bildu egin zituen kantua osatzen duten hamabost bertsetak, eta berari esker iritsi da bizirik gure gaurko egunetaraino. "Bereterretxen



khantoria” dugu dudarik gabe, gure ahozko literatura zaharrea bizirik gorde dugun bitxirik ederren eta aberatsena. Buka dezagun lehen atal hau kantu famatu honen lehen bertseta gogora ekarriz:

“Haltzak eztü bihotzik  
ez gaztanberak ezürrik:  
enian uste erraitzen ziela  
aitunen semek gezürrik”

## 2.- XVI. Mendea

Geroxeago, XVII. mendean, Oihenart zuberotarrak esango digunari jarraiki, badirudi ZALGIZEKO JAUNA oso olerkari ona zela, baina zorigaitzez gaur ez dugu bere lan poetikoari buruz ezer gehiago ezagutzen. Protestantea omen zen eta hauxe da agian bera izena eta bere olerkiak baztertzeko eta ahazteko arrazoia JOANES EZPONDAKO izeneko idazle eta olerkaria izan zen ere, baina badirudi frantsesez egin zuela den-dena. Gaur egun ezagutzen dugu bere lana Orpustanek nafar-lapurterara egindako itzulpenari esker. Hau ere, protestantea zen.

## 3.- XVII. Mendea

Mende hau izan zen euskal literaturaren urrezko mendea, Lapurdiko Sara aldean oso eskola sendoa sortu baitzen, eta bertakoa baitzen gure literaturan izan dugun idazlerik gorena: Axular. Baina Lapurdin hori gertatzen zen, ez bada indar eta maila berarekin ere, euskaraz idazteko grina. Eta hau gertatu zen hiru pertsonaia handiren inguruan.

### a.- ARNAUT OIHENART (1592 - 1667)

Zuberotarra, Maulen jaioa. Legegizona. Zuberoako sindiko nagusia izana, eta Donapaleun, Nafarroako Parlamentuko legegizona. Legegizon, politikari, historiagile eta idazle famatua izan a. Latinez, frantsesez eta euskaraz idatzi zuen. Euskaraz “atsotitzak eta Oihenarten gaztaroa neurtitzetan” idatzi zuen. 706 esatera zahar bertan bildu zuelarik. Kultista da eta nahasi egiten ditu sehaskatik hartutako zuberera, berak asmatutako neologismoak eta lapurtera eta nafarreratik mailegu gisa hartutako hitzak. Askotan ez dakigu nafarreraz edo zubereraz ari den, agina bi euskalki hauen arteko ezberdintasunak ez zirelako garai hartan horren handiak. Tamalez bere lanik oparoena “Notitiae utriusque Vasconiae”, latinez egin zuen.



## b.- JEAN TARTAS

1610ean edo 1612an Sohütan jaioa, laborari baten seme. Arue eta Atarratzen izan zen apaiz. Bi liburu idatzi zituen, biak zubereraz, "Ontsa hiltzeko bidea" eta "Arima penitentearen okupazione debotak". Bere hizkera ez da oso garbia latinetik hartutako hitz asko baitarabiltza. Lapurterazko eta nafarrerazko hitzak ere oso ugariak dira. Izugarri barrokoa da hizkeraren arloan.

## d.- AITA BEAPEIRE

Mauletarra. Apaiza eta Sohütako erretorea izena. Berak idatzitako "katexima laburra" izeneko liburua izan da hartua benetako zubereraz idatzitako lehen liburutzat. Zuberera batua erabili zuen, zuberera literarioa. Bera omen da zuberera klasikoaren aita, eta zuberera klasiko horrek hiru mendetan iraun du elizaren liburu eta idazkietan. Eredutzat hartua izan da zubereraz idazteko orduan. Gaur Pello Agirre bere kateximari buruz ari da tesia egiten.

Dena den, aipatu beharra dago bere liburua ez dela originala, Bossuet izeneko frantses batek egindako dotrina liburuaren zubererazko itzulpena baizik. Esaten denez, Belapeireren aitak ere, idatzi omen zuen bai euskaraz eta bai frantsesez, baina maleruski ez dugu ezer ezagutzen hau baieztatu ahal izateko.

## 4.- XVIII. Mendea

Hauxe izan zen Europan filosofoen mendea: Voltaire, Rousseau, Montesquieu,... Euskal Herrian gauza bera geratuko da, Manuel Larramendi sortuko baita Gipuzkoan, Joanes Etxeberri Sarakoa Lapurdin eta Jusef Egiategi Zuberoan. Bestelako idazleak egongo dira Zuberoan baina Egiategi izango da eta askosez onena eta originalena. Aztertu ditzagun banan banan:

## a.- JUSEF EGIATEGI

Errejenta (maisua) eta filosofoa. Katolikoa erlijioz eta erreformazalea. Davanten ustez ideaia abertzaleak ba omen zituen. Idazteko orduan garbizalea, Larramendiren neologismo asko erabiltzen dituen. Bere lana ezagun zaigu Txomin Peillenek egindako biltze-lanari esker. Bere lanak hauxek dira: "Lehen liburua edo filosofo heuskaldun baten ekheia". Bigarren liburu bat badu baina eskuiskribu modura guregana iritsi dena. Eta ba omen du zeredozer idatzia ere Euskal Herriaren historiari buruz. Zuberoako literaturak beherakada handia sumatuko du XVIII. mendean, Egiategi izan ezik, ez baita beste inor handirik izanen.

## b.- MAITIE

Oloroeko apezpikuaren katexima bat euskaratu zuen.



## d.- MARTIN MAIZTER

Likiko erretorea zen. "Jesukristoren imitationea" itzuli zuen zuberera. Lapurteraz badira beste bi itzulpen.

## e.- BEÑAT MARDO

Jostuna eta bapateko koblakaria (bertsolaria). Oso famatua izan zen bere garaian, baina zoritxarrez eta idazten ez zuenez, bakar-bakarrik bi kobla andana iritsi dira gure egunetara. Famatuena "Ni naiz Beñat Mardo" izenekoa.

## f.- MOSEINA

Bizibide z intzaregile zen beste koblakaria. Izena besterik ez dugu gaur ezagutzen.

g.- Jakin badakigu neska kantore famatu bat egon zela, baina zoritxarrez ez dugu berari buruz ezer gehiago ezagutzen, ez bere izena ere.

## 5. XIX. MENDEA

Izugarri aberatsa izango da eta oso idazle onak emango ditu.

Ikus ditzagun:


### a.- MIXEL DABADIE ÜRRÜSTOI

Ürrüstoi herrikoa eta Antoine Dabadieren aita. Zubereraz idatzi zuen baina ezer gutxi.

### b. ANTOINE DABADIE ÜRRÜSTOI

Aurrekoaren sema. euskal Jaien eta Lore Jokuen sortzailea. Nahiz eta sortzez lapurtarra izan zeredozer idatzi omen zuen zuberera klasikoaz.

▶  
*Antoine Dabadie lapurtarra zen sortzez, baina zuberotarra jatorriz, Ürrüstoiko semea zen Mixel Dabadie idazlearen semea.  
Antoineri sor dizkiogu XIX. mendean piztutako Euskal Jaiak eta Lore Jokuak.*







◀ Augustin Xaho, ezkerreko euskaltzale handia izan zen. Karlisten aldekoa eta errepublikarra denbora berena. Zubereraz "Azti begia" idatzi zuen.

#### d.- AUGUSTIN XAHO (1811-1858)

Atarratzekoa. Politikari, kazetari, idazle, filosofo eta poliglota handia. Errepublikazalea eta ideia abertzaleetako. Idazle oparoa eta aberatsa, bai euskaraz, bai frantsesez eta bai latinez. Berea da, gaur egun oraindik euskaraz irakur ez dezakegun "Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques" liburu xarmangarria eta mitoz betea. Euskaraz, zubereraz, "Azti begia" idatzi zuen. Askotan nahasi egiten du zuberera batu antzeko batez. Gramatika bat landu zuen Dabadierekin batera, zuberera

oinarri gisa harturik. Baionako Euskal Erakustetxean eta bertako udal liburategian badaude kopia bana.

#### e.- JEAN BATISTE ARTSU (1811 - 1881)

Gramatika bat egin zuen, eta baita Lafontain-en zenbait alegi zuberara itzuli ere.

#### f.- LOUIS GEZET

Zubererazko gramatika egin zuen.

#### g.- EMANUEL INTXAUSPE (1815 - 1902)

Laborarien semea, Zúnharretan, Atarratzetik hurbil, sortua. Apaiza eta bere elizlanak Baiona aldean egin zituen. Bera izan zen Bonaparte Printzearen gidari eta laguntzaile. Anitz idatzi zuen:

- "Maria Birjinaren hilabetia"
- Jesu Kristen Ebanjelio Saintia Sen Matiuren arauera
- Iturriagaren "Dialogos"-en zuberazko itzulpena
- La verbe basque

Bere lanetan zubereraz gain, lapurtera ere erabili zuen. Botanikari buruzko lan bat ere idatzi omen zuen.



## h.- FELIX LARRIEU

Mauletarra. Bedezia (medikua) eta barberra. Euskaraz eta frantsesez idatzi omen zuen.

## i.- SALABERRI

Mauletar notarioa izan zena. "Chants populaires de Pays Basque" ospetsua idatzi zuena.

## j.- DIMAITI

Sohütako semea. Pastoraiegilea. Berea da "EÜSKALDUNAK IBAÑETAN" izeneko pastoral, Sohütan, 1914an jokatu zena. Berak banatu zuen pastral-oholtza hiru zatitan, tradiziozko alde ona eta txarra gehi hirugarren alde neutro bat.

## k.- CONSTANTIN ERRETOREA

Santa Graziko maisua izan zen. Berak idatzi zuen: "Aipamen bat Haritxabal Erretore Jaunaren gainean" izeneko liburua.

## 1.- PIERRE TOPET ETXAHUN (1786 - 1862)

Barkoxen jaioa eta Zuberoan izan den koblakaririk ospetsuena. Bere bizitza ederki islatua da Yon Etxaidek egindako "Joanak Joan" elaberri ezin obean eta bere lan poetikoa Jean Haritxelarrek egindako bilduma eta kritika liburuan. Bereak dira: "Ahaide delizius huntan", "Urtsaphal batdügü",... beste askoren artean. Etxahun da dudarik gabe, Zuberoako bihotza eta izpiritua hobekien azalarazten jakin duena. Zoritxarrez bera kantu asko galdu dira.

## 6.- XX. MENDEA

Guztiek iragartzen zuten zuberaren heriotza, eta inork gutxik espero zuen zuberotarren hizkera XX. mendean bizirik izanen zela. Baina iritzi guzti horien kontra, Zuberoak erakutsi digu guztioi bizi nahi duela, eta euskaldun izaten jarraitu nahi duela. Pastoralak berpiztu egin dira, maskaradak izugarri indartu, eta bertako euskararen egoera oraindik kolokan badago ere, badago indarra eta gogo gaurko zuberotarren baitan aurrera egiteko eta zuberera bere tokian jartzeko. Hau dela eta, idazleak ugariak dira, zahar eta gazteak, ugariak eta onak, izugarri onak askotan gainera. Hona hemen mende hontako idazleen zerrenda luzea!



a.- LIGUEIX (Ligetx ahoskatzeko)

Larraintarra baina Gamerrera ezkondua. Koblakaria eta bardoa. Etxahun-Irurirekin aritzen zen plazaz plaza eta herriz herri. Berea da "Bontea eta txapela" izeneko bertso famatua.

b.- BATIXTA BORTIRI-SALLA

Larraintarra. Lehen Mundu Gerran ibilia. Bertsoak idazten zituen. Bere gairik erabilienak: bere herria Larrañe eta Prusian preso egondakoaren garaia.

d.- ETXAHUN-IRURI

Irurikoa. Olerkari, koblakari, pastoragele eta plaza-gonza. Berak bideratu eta salbatu du pastorala gaurko garai modernoetara egokituz. Bereak dira "Agur Zuberoa" eta "Goizian argia hastian" bezalako kanta hungigarri asko. Bederatzi pastoral idatzi zituen: "Etxahun-Barkoxe", "Santxo Azkarra", "Bereterretxe", "Matalaz", "Jimena", "Treville"...



◀  
Etxahun Iruri. Olerkari, koblakari, pastoragele eta plaza-gozon ospetsua. Bereak dira, beste askoren artean, "Agur Zuberoa" eta "Goizian argia hastian" kantuak. Bederatzi pastoral idatzi zituen.

e.- GUILLAUME EPERRE

Etxahun-Barkoxeri buruzko diskoa egin zuen.

f.- AITA LANDE

Baiondarra izan arren gurasoak zuberotarrak zituen. Aipatzekoa da bere hiztegia hiru euskalkitan, horietako bat zuberera delarik. Zuberera aztertzekeo nahitahiezeko erraminta gaur.



## g.- JON MIRANDE

Parisen sortua, baina guraso zuberotarren semea. Lapurteraz eta zubereraz idatzi zuen. Idazle eta olerkari. Neorromantikoa, abertzale eta eskuindarra (nazien aldekoa). Aipatzekoak dira "Oroituz" (olerki bilduma) eta "Haur besoetako" (elaberria).




◀  
*Jon Mirande, Parisen sortutako idazle zuberotarra, izango da urte luzetan, gure literaturaren pertsonaia eztabaidatutakoena. Neorromantikoa, abertzalea, promazia eta erotikoa.*

## h.- TXOMIN PEILLEN

Parisen jaio baina zuberotarren semea. Jon Miranderen lagun handia. Euskaltzaina. Idazle oparoa. Bereak dira beste askoren artean: "Gatu beltza" eta "Alfjezairia askatuta". Zubereraz idaztean Basabürüko hizkera erabiltzen du.

## i.- JUNES CASENAVE

Apaiza, idazlea, olerkaria eta pastorelegilea. Batuaz, zubereraz eta frantsesaz idazten du. Poliglota eta ekialdeko hizkuntzen mireslea. Garbizalea izanik hitz berriak asmatzen ditu. Sei pastoral ditu jokatuak eta 4 jokatu gabe. oso famatuak izan dira: "Santa Grazi", "Ibañeta" (Davanten ustez onena), "Pette Basabürü,... Bi liburutako hiztegia egin ditu: "Zuberera-frantsesa eta Frantsesa-Zuberera". Zubereraren gramatika egin ari da. Santagraztarra da.



◀  
*Junes Casenave-Hirigilea dugu, inolako zalazarik gabe, Zuberoako kulturaren patriarka. Apaiza, idazlea olerkaria, poliglota, pastorelegilea eta gizon jatorra.*

## j.- ARNAU AGERGARAI

Muskildikoa. "Oihenart" pastorala idatzi zuen, Muskildin jokatu zena, eta baita "Sabino Arana" izenekoa Garindainen 1996an jokaturakoa. Ez da Casenave bezain garbizalea.



k.-MIXEL BEDAXAGAR

Urdiñarbekoa. Xirularia, ttuntunjolea eta pastorelegilea. Bereak dira: "Augustin Xaho", "Etxahun-Barkoxe", "Iparragirre" Gaur kantari ibiltzen da herriz herri eta baditu zenbait disko argitaraturik.

l.- PIERRE PAUL BERZAITZ

Muskildarra Pauen bizia dena. GUK taldekoa. Kantaegilea eta pastorelegilea. Antzezlanetan oso trebea. Bereak dira "Harizpe" eta "Atarratzeko Jauregian" (1979an jokatua), eta baita "Elkanoren Semeak" izeneko antzezlan berezia. Bera da gaurko Etxahun Davanten aburuz.

m.- ROBERT IDIART

Apaiz azkaindarra. Bera idatzi zuen Larrañen jokatu zen "Xalbador" pastorala.

n.- JEAN LOUIS  
DAVANT

Idazle eta euskaltzaina. Hiru pastoral idatzi ditu: "Euskaldünak Iraultzan" (Gotainen, 1993an jokatua), "Agirre presidentea" (Arrokiagan, 1995an) eta "Xiberoko makiak" (jokatugabea).



◀ Jean Louis Davant idazle eta euskaltzaina. Bereak dira: "Euskaldünak Iraultzan" eta "Agirre presidentea" izeneko pastoralak.

ñ.- ITXARO BORDA

Amikuzekoa izan arren Maulen bizi den idazle oparo eta ezauna. Zubereraz "Bakean ützi arte" izeneko elaberria idatzi du.



◀ Itxaro Borda, Maulen bizi den idazle amikuztar famatua. Zubereraz "Bakean ützi arte" izeneko elaberria idatzi du.



## o.- BEÑAT SARASOLA

Lapurtarra Maulen bizi dena. GUK taldekoa. Musikari eta kanta egile famatua.

## p.- NIKO ETXART

Kantari eta kantaegile famatua. Altzürükoa izan arren Altzain bizi da. Disko anitz kaleratu ditu.

## r.- MIXEL ETXEKOPAR

Xirulari eta kantaegilea. Gotainen bizi da.

## s.- ROBERT LARRANDABÜRÜ "PIPAS"

Mendizale famatua, hizlari eta artikuluegilea.

## t.- DOMINIQUE ERREKART

Errejentia famatuaren anaia. Ba omen du pastoral bat idatzia baina jokatu gabea.

## u.- DOMINIQUE ETXART

Niko Etxarten aita. Koblakaria, kantaria eta kantaegilea.

## v.- FRANCOIS GASET

## w.- PATRIK KEHEILLE

1998an Barkoxe herriak jokatuako "Herriko semeak" pastoralaren egilea.

Ikusten duzuen bezala, zuberotar idazleen zerrenda luzea da. Ez dirudi hiltzera dagoenik. Zuberoak bizi nahi du eta luze biziko da. Bai horixe!

*JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN*